

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jiménez lehendakarioordeak epaitegien eraikin berria eta Foruzaingoaren herritarrentzako arreta-bulego berria bisitatu ditu Tuteran

2011n hiri horretan 22.793 arreta eman ziren Nafarroako Gobernuaren bulegoan, eta gaur arratsaldetik aurrera Foruzaingoaren 'leihatila' bat izango du salaketako izapidetzeko

Martes, 10 de abril de 2012

Lehen lehendakarioorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilari Roberto Jiménez Allik Tuterako epaitegien eraikin berria bisitatu du gaur goizean (bertako obrak berriki amaitu dira), eta baita Foruzaingoaren herritarrentzako arreta-bulego berria ere, udalerriko erdigunean dagoena (gaur arratsaldean irekiko ditu ateak).



Lehen planoan, hiriko alkatea, Tuterako epaile dekanoa eta Jiménez lehendakarioordea epaitegien eraikin berrira egindako bisitan.

Epaitegi berrietara egindako bisitan zehar, lehen lehendakarioordearekin batera, Nafarroako fiskalaren zuzendari Javier Muñoz; Tuterako alkate Luis Casado; Justizia eta Barneko zuzendari nagusi Inmaculada Jurío eta Tuterako epaile dekanoa Oscar Sebastián izan dira, beste epaile eta magistratuen artean.

Ekitaldian, Jiménez lehendakarioordeak nabarmendu duenez, "datozen asteotan altzariak eraikin berrira eramango dira uda pasata prest egon dadin, eta trantsizio-aldi horretan herritarrei ahalik eta eragozpen gutxiena eragiteko".

Queilesko Ibai Parkearen alboko Albeako bidean dauden Tuterako epaitegi berriak eraikitzeko obrak egiteko 5,2 milioi euroko inbertsioa egin da, Nafarroa 2012 Planaren barnean, eta obrak Huarte Lain SA enpresak eta Construcciones Luciano Elcarte-k osatutako taldeari esleitu zitzaizkion

Warqs Oficina de Arquitectura SLP eta Otxotorena Arquitectos, SL enpresek diseinatutako eraikin berriak 5.356 m²-ko azalera erabilgarria du lau solairutan banatuta (sotoa, behea, lehenengoa eta bigarrena) eta bost epaitegi izango ditu. Gainera, Fiskaltzarako instalazioak ditu, Erregistro Zibilaren bulegoa, guardiako epaitegiko aldea, abokatuen elkargoentzako eta prokuradoreentzako aretoak, artxiboa, garajea eta Foruzaingoaren jendearentzako arreta gunea.

Tuterako epaitegien berrikuntza Nafarroako Gobernuaren Justizia Administrazioa modernizatzeko planaren barnean kokatzen da. Gobernuak bide horri heldu zion arlo horretan eskumenak bere gain hartu ondoren. Harrezkero, Foru Gobernuak komunitateko bost alderdi judizialen egoitzak berritzen eta zabaltzen aritu da.

Foruzaingoaren herritarrentzako arreta-bulego berria Tuterako erdigunean

Jarraian, Jiménez lehendakariordea Foruzaingoaren herritarrentzako arreta-bulego berria ezagutu du, gaur arratsaldetik aurrera irekiko dena Erriberako hiriburuko erdigunean, kanpoaldean dagoen komisariara joatea ekidinez horrela.

Foruzaingoaren zerbitzu berri hau Foruen plazan, 5 eta 6 zenbakietan, dagoen Inf012navarra bulegoen barnean dago, nahiz eta kaletik, bereizita sarbide independentea izan. Arretarako ordutegia astelehenetik ostiralera 07:30etik 21:30 era da, ordutegi jarraian, eta asteburuetan 07:30etik 14:00 etara.

Roberto Jiménez-ek adierazi duenez, "leku horretan salaketak izapidetzeko polizia-zerbitzuak jarrita, ziarra dezakegu Nafarroako Gobernuak Tuteran herritarrei arreta emateko bulego integral bikaina duela, eta Tuterako nahiz Erriberako beste udalerrri batzuetako herritarrek beharrezkoak dituzten zerbitzuen zati handiena jasotzen dituela, Foru Komunitatearen Administrazioari lotuta. Horrek beharrezkoak ez diren desplazamenduak ez egiten lagunduko du, denbora aurrezten eta herritarrei erraztasun handiagoak ematen".

Lehen lehendakariordearekin batera izan dira: Foruzaingoaren buru Gerardo Goñi; Justizia eta Barneko zuzendari nagusi Inmaculada Jurío; eta Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien zuzendari nagusi Guzmán Garmendia.

2011n 22.793 arreta eman zituen Tuterako Nafarroako Gobernuaren bulegoak zortzi teknikari eta arduradun bat ditu, eta herritarrari aukera ematen dio informazio, partaidetza publiko eta dokumentazioko erregistro ofizialeko izapideak egin ditzan. Gainera, berriki leku horretan jarri da udalerriko "Reyno de Navarra" turismo-bulegoa ere, eta kudeaketak ere gin daitezke NASUVINSA sozietate publikoaren babestutako etxebizitzaren sustapenen inguruan.

Gainera, Nafarroako Gobernuarekin hitz egin daiteke 012 telefonoaren bidez, gobierno@navarra.es posta elektronikoz, WhatsApp berehalako mezularitza-zerbitzuarekin (683 706 070 zenbakiaren bidez) edo gizarte-sareen bidez (Facebook, Tuenti, Twitter eta Google+).

Tuterako suhiltzaileen 879 esku-hartze 2011n

Jiménez lehendakariordeak Erriberako hiriburuan egindako bisita Tuterako suhiltzaileen eskualdeko etxea bisitatuz amaitzea aurreikusten da; berekin batera izango da, Nafarroako Larrialdien Agentziako zuzendari-gerente José María Vázquez.

Eskualdeko suhiltzaile-etxe horrek 879 esku-hartzen izan zituen iaz eta ikastetxeetako 237 ikasle hartu zituen hamar topaketetan. 37 langile daude bertan: haietatik 29 suhiltzaileak dira, 7 kaboak eta beste bat sarjentua.

Tuterako suhiltzaile-etxeak basoko bi ibilgailu ditu, bat lehen irteerako, auto-eskalako ibilgailu bat, esku-hartze kimikorako beste bat, anbulantzia bat eta langileak eramateko hiru ibilgailu.

Galería de fotos



Bulego berriaren kanpoko irudia. Ezkerretik eskuinera: Casado, Goñi, Jiménez lehendakariordea, Garmendia, Jurío eta foruzain bat.



Tuterako epaitegiak kokatuko diren eraikin berriaren kanpoko irudia.